

20/11

irizpena

ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN-HONDAKINEN
EKOIZPENA ETA KUDEAKETA
aratu dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2011ko azaroaren 18an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzardea



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao. Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: Cuatrobarras

Inprenta: Imprenta Gestingraf

Lege Gordailua: BI-3252-11

The background features a series of overlapping, thin, light blue circles that create a complex, organic pattern. A solid, medium-blue horizontal bar spans across the middle of the image. The text 'irizpena' is written in a white, lowercase, serif font, positioned on the bar. To its right, the year '2011' is displayed in a white, sans-serif font, with the '11' being smaller and positioned slightly above the '20'.

irizpena 20¹¹

I. AURREKARIAK

2011ko urriaren 10ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte arazoetarako Batzordeak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren idazkia jaso du, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa aratu dituen Dekretu Proiektuari buruzko txostena eskatuta, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoari helduta.

Halaber, horren kopia berehala Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei bidali zitzairen, proposamenak nahiz iritziak igorri eta horiek Lan Batzorde egokiari bidaltzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudian ezarritakoa kontuan izanda.

20/11 

Ekonomiaren Garapen Batzordea 2011ko azaroaren 9an bildu zen, Irizpen Aurreproiektuaren lehen proposamena eztabaidatzeko. Egun berean, Batzordeak Irizpen Proiektu hau onetsi du, eta horrela EGABko Osoko Bilkurari helarazi dio 2011ko azaroaren 18an eta aho batez onartu da.

II. EDUKIA

Hona hemen Lege Aurreproiektuari buruzko testuaren banaketa: Aitzinsolasa, 14 Artikulu, 4 Xedapen Gehigarri, Xedapen Iragankor 1, 6 Azken Xedapen eta 5 Eranskin.

Zioen Azalpena

Zioen Azalpenaren hasieran adierazitakoaren ariora, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen garapena onetsi duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren xedea eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari buruzko araubide juridikoa ezartzea da, horren prebentzioa, berrerabilera, birziklapena eta bestelako balorazio-moduak (hurrenkera hori kontuan izanda)

sustatzeko helburuarekin, betiere ezabaketa-eragiketak egin behar dituztenek tratamendu egokia jasoko dutela ziurtatuta, eta ildo beretik, eraikuntza-jardueraren garapen iraunkorra bultzatu dadin.

Errege Dekretu horren bidez, oinarrizko izaerarekin, lege-testuaren barruan, beste gai batzuen artean, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketan esku hartzen duten eragile guztien betebeharrak arautu dira, betiere, arauaren xedeak bermatzeko helburuarekin, herri administrazio eskudunek bete beharreko jarduketaz gain.

Beraz, gai horren inguruko alderdi zehatz batzuk Autonomia Erkidegoek onetsitako legeria zehatzaren bidez araututa egon behar dira.

20/11j

Zioen Azalpenean adierazi den bezala, Euskal Herriko Ingurumenaren Babeserako otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 71. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta, EAEk, arauz, hondakinak ekoitzi eta/edo kudeatzeko jarduera ezberdinak garatzeko baimen zehatzen araubidea ezarri ahal izango du.

Horrenbestez, Dekretu Proiektu horren bidez Errege Dekretuaren arabera Autonomia Erkidegoei eskuordetutako alderdiak arautzen dira, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntza- eta eraispén-hondakinen balorazioari buruzko xedeen betepena ahalbidetzen duten bestelakoekin batera.

Lege-testua

1. Artikuluan Dekretuaren xedea eta helburuak biltzen dira. Horrela, Dekretuaren xedea EAEn eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari buruzko araubide juridikoa ezartzea da, helburu zehatz batzuk erdiesteko.

2. Artikuluan definizio batzuk jaso dira. Hain zuzen ere, ondoko definizioak bereizten dira: eraikuntza edo eraispén, obra txikia, obra handia, eraikin edo instalazio kutsatuak, eraikuntza- eta eraispén-hondakinak, eraikuntza- eta eraispén-materialak, eraikuntza- eta

eraihsen-hondakinen ekoizlea, eraikuntza- eta eraihsen-hondakinen edukitzailea; eta tokiko eskumenaren gunea.

Bada, **3. Artikuluan** aplikazio-eremua jaso da. Horren ariora, 2. artikuluan definitutako eraikuntza- eta eraihsen-hondakinak eta -materialak jasotzen dira. Hala ere, hori ezin izango da aplikatu mineral-baliabideen prospekzioaren, erauzketaren, tratamenduaren edo biltegiratzearen ondoriozko hondakinei begira, ezta ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuaren bidez estalitako harrobien ustiapenaren ondoriozkoei begira ere; ezta ur-azalen barruan berriro kokatutako sedimentuei begira ere, uren nahiz nabigazio-bideen kudeaketaren, uholdeen prebentzioaren edo uholdeen nahiz lehorteen ondoreen murrizketarako, edo lursail-azalera berrien sorreraren ondoretarako, baldin eta sedimentu horiek arriskutsuak ez direla egiaztatzen bada.

4. Artikuluan obra handiaren ondoriozko eraikuntza- eta eraihsen-hondakinen eta -materialen ekoizleen betebeharrak jaso dira. Izan ere, hirigintza-lizentziaren mendeko obren eta hirigintza-lizentziarik behar ez duten obren arteko ezberdintasuna nabarmenduko da.

Ekoizleak bete beharreko betebeharren artean, bi kasu horietan, obra-proiektuaren barruan eraikuntza- eta eraihsen-hondakinen kudeaketarako azterlana biltzea da.

5. Artikuluan adierazitakoaren arabera, ekoizleak obra-lizentziaren eskuraketa kontrolatzeko mekanismo gisa fidantza eratu behar du, obra handiaren ondoriozko eraikuntza- eta eraihsen-hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko xedearekin.

6. Artikuluan ezarri den bezala, obra handiaren ondoriozko eraikuntza-hondakinen eta -materialen kudeaketa zuzena egiaztatu behar da. Halaber, eraikuntza-hondakinen eta -materialen ekoizleak obraren zuzendari adituak sinatutako txostena aurkeztu beharko du, eta hori Dekretuaren eranskinean zehaztutako ereduaren ariora egin beharko da. Gainera, ingurumen-arloko organoak helburu horretarako egiaztatu duen erakunde independenteak egiaztatu beharko du. Gisa

berean, hondakinak sorrarazi dituen jarduketarekin batera lurzoruaren jarduera kutsatua jasan duen eraikina eraitsi bada, azken txosten hori egiaztatutako erakundeek egin ahal izango dute, lurzoru kutsatuei buruzko arauketan xedatutakoari helduta.

Bestalde, **7. Artikuluan** obra handiaren ondoriozko eraikuntza- eta eraispen-hondakinen eta -materialen edukitzaileen betebeharrak ezarri dira. Hain zuzen ere, artikuluan adierazi den bezala, edukitzaileek hondakinak kudeatzeko azterlanaren alderdi ezberdinak biltzen dituen plana aurkeztu beharko dute, bai eta hori behar bezala beteko duen arduradunaren zehaztapena ere.

20/11*i*

Halaber, **8. Artikuluan** obra handiaren ondoriozko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak zati ezberdinetan segregatzeko (bereizteko) nahitaezko tasuna jorratu da, batik bat, banaka zati horietako bakoitzari begira, guztizkoa sortzeko aurreikusitako zenbatekoak kopuru jakin batzuk gainditu baditu. Hondakin arriskutsuak gainerakoetatik bereizi beharko dira.

Bestalde, **9. Artikuluan** obra handiaren ondoriozko eraikuntza- eta eraispen-hondakinen eta -materialen ekoizleen eta edukitzaileen betebeharrak ezarri dira.

10. Artikuluan eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeatzaileen betebeharrak arautu dira.

Hala, **11 eta 12. Artikuluetan** eraikuntza- eta eraispen-hondakinak baloratu eta ezabatzeko jarduerak arautu dira, 12.ena lantegi mugikorrei dagokienez. Izan ere, halakoak garatzeko, bi kasu horietan, aurretiaz ingurumen-arloko organoak baimena eman beharko du.

Bestalde, **13. Artikuluan** izapidetza telematikoa eta **14. Artikuluan** administrazio-erantzukizuna nahiz zehapen-araubidea arautu dira.

Lehenengo Xedapen Gehigarrian hondakinen korrontekak segregatzeko atalasea ezarri da.

Bigarren Xedapen Gehigarrian eraikuntza- eta eraispen-hondakinak baloratzeko eragiketaren ondoriozko produktu gisa eskuratutako agregakin birziklatuak nahiz eraikuntza-materialak erabiltzeko betekizunak jaso dira.

Hirugarren Xedapen Gehigarrian fidantza kalkulatzeko informatikako prozedurak arautu dira.

Laugarren Xedapen Gehigarrian erosketa publiko berdea landu da.

Xedapen Iragankorrean 6. artikuluan ezarritako kudeaketarako azken txostenen egiaztapena arautu da.

20/11 

Azken Xedapenetatik Lehenengoan hondakinei eta eraispenari buruzko udal-ordenantzen onespena arautu da.

Azken Xedapenetatik Bigarreanean eta **Hirugarreanean** eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketarako udal-azpiegiturak jaso dira.

Azken Xedapenetatik Laugarrenean otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua aldatu du, hondakinak ezabatzeko jardueri aplikatu beharreko araubide juridikoa ezarrita, betiere halakoak zabortegira bota eta betegarriak gauzatuta.

Bosgarren Xedapen Gehigarrian Dekretuaren garapena arautu da.

Seigarren Xedapen Gehigarrian Dekretuaren indarraldia jorratu da.

Jarraian, Eranskinak zerrendatuta ageri dira:

I. Eranskina. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta -materialak kudeatzeko azterlanaren gutxieneko edukia.

II. Eranskina. Lurzoruaren jarduera kutsatuak jasan dituzten eraikinetako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak aztertzeke eduki gehigarria.

III. Eranskina. Kudeaketarako Azken Txostenen edukia.

IV. Eranskina. Lantegi mugikorren betekizun teknikoak.

V. Eranskina. Otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekiko II. Eranskina. Zabortegetako hondakinak onartzeko prozedura eta irizpideak.

III. OHARRAK

III.1 OHAR OROKORRAK

20/11*i*

Dekretu Proiektu horren bidez, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautu dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren alderdi batzuk zabaldu dira. Izan ere, Aitzinsolasan oinarritzko izaera azpimarratu da, baina zenbait alderdi Autonomia Erkidegoek zehatz-mehatz arautuko dituzte.

Bada, aipatutako hondakinen kudeaketa kontrolatugabea eta ezkutukoa ezabatu nahi da, ingurumenaren gain horrek eragin ditzakeen ondore negatiboekin batera, eta horrela, arauketa autonomikoan Europako Zuzentarauan eta Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Estatuko Legean ezarritako eraikuntza- eta eraispén-hondakinen berreskurapenari buruzko xedeak bilduko dira.

Horrenbestez, EGABek Dekretu Proiektua modu positiboan baloratu du. Zernahi gisaz, ohar batzuk egin behar ditugu.

Alderdi juridikoak

Ikuspuntu juridikoa dela medio, Aitzinsolasaren edukia berrikusi behar da, lege zehatz bat aipatzen den heinean, hots, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Estatuko Legea. Hain zuzen ere, hori baliogabetu eta horren ordezt Hondakinei eta Lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea ezarri da.

Ingurumenari buruzko Erkidegoaren Ekintzarako Seigarren Programan agindutakoaren arabera, hondakinei buruzko legeria berrikusi behar da, eta hondakinen eta ez-hondakinen arteko bereizketa egin behar da, bai eta hondakinen prebentzioarekin eta kudeaketarekin zerikusia duten neurrien garapena ere, xedeen ezarpena barnean hartuta. Ildo beretik, 2003ko maiatzaren 27an Batzordeak egindako Komunikazioa "Hondakinen prebentziorako eta birziklapenerako estrategia telematikoa" oinarri hartuta, berrikuspena aurrera eraman da.

Hori guztia dela medio, erkidegoaren hondakinei buruzko aurreko araubide juridikoa ordeztu da, eta arau bakar batean biltzen dituen Zuzentarau zehatzak baliogabetu dituen hondakinei buruzko 2008ko azaroaren 19ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/CE Zuzentaraua aldarrikatuko da. Zuzentarau horretan hondakinak kudeatzeko Europar Batasunaren esparru juridikoa ezartzeaz gain, hazkunde ekonomikoaren eta hondakinen ekoizpenaren arteko lotura bereizten dituzten tresnak eskaintzen dira, betiere prebentzioa bereziki azpimarratuta, produktua hondakin bihurtu aurretik aplikatutako neurrien multzo gisa ulertuta, gai arriskutsuen kopurua eta edukia murriztu ahal izateko, bai eta gizakiaren eta ingurumenaren gain eragin kaltegarriak murriztu ahal izateko ere. Horrela, hondakinen ekoizpenean eta kudeaketan hierarkia-printzipioa ezarri da, eta abiapuntua prebentzioa, berrerabilerarako prestaketa, birziklapena edo bestelako balorazio-moduak dira, balorazio energetikoa barnean hartuta.

Europako Zuzentarauaren transposizioa Hondakinei eta Lurzoruei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen bidez egin da. Izan ere, horrek indarrean dagoen Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea ordeztuko du.

Hala ere, Batzorde horrek adierazi nahi izan duenaren ariora, Europako Zuzentarauak hondakinaren inguruan egindako definizioa hau da: *"edukitzaileak bota edo botatzeko asmoa edo botatzeko betebeharra duen edozein gai edo objektu"*. Hala ere, ez dago inolako bereizketarik hondakinaren eta ez-hondakinaren artean; eta ondorenez, arauketa oraindik hobetu daiteke.

Inkardinazio-beharrizana esangura zabalean

Batzordearen ustez, agiria esangura zabalean inkardinatu behar da, Hondakinei buruzko etorkizuneko Euskal Legea onesteko nahia nabarmenduta.

Dekretu Proiektuaren eta eraikuntza iraunkorraren nahiz eraikinen diseinuaren arteko lotura

Harrigarria da, Dekretu Proiektu honen 1.2.e) artikuluan adierazi den bezala, xedea "eraikuntza iraunkorraren garapena bultzatzea" dela, eta hala, prebentzioa sustatu nahi da (1.2 b artikulua), eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa zuzena bakarrik jorratuta, eraikinen diseinua barnean hartu gabe.

Jakina da, eraikinen diseinu-motak kontuan izanda, hondakinen bolumena eta arriskugarritasuna aldatu egiten dira. Eta eraikinen diseinu modularrak (eraikuntza osagai aurrefabrikatuak oinarri hartuta, eta beraz, eraikuntza lehor gisa ezagutzen da - horren aurkako eraikuntza hezea da, euskal eraikuntza nagusia-) hondakinen murrizketa handia eskuratu du, bai eraikuntzan bai eraispenean, osagai horiek berriro erabili daitezkeelako. Hori da, hain zuzen, iparraldeko zenbait herrialdek ia %100ko berrerabilera- eta birziklapen-kotak eskuratzeko arrazoi nagusia.

Terminologia zehatzari buruzko hausnarketa eta argibideak

Bada, 10 eta 13. artikulua irakurri ostean, gure ustez, adjektibo telematikoak eta elektronikoak berrikusi eta zehaztu behar dira. Horrela, 10. artikuluan artxiboa *telematikoak* eta 13. artikuluan *baliabide elektronikoak* zehazten dira.

III.2 OHAR ZEHATZAK

1. Artikulua. Xedea eta helburuak

Hala, 2. puntua konplexua da eta ez du errespetatzen oinarrizko arauketan ezarritako jarduketaren arauketa. Horregatik, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan, Dekretu Proiektuaren Aitzinsolasaren lehenengo paragrafoan aipatutakoan, komentatutako jarduketaren hierarkia ezarri da: prebentzioa, berrerabilera, birziklapena eta bestelako balorizazio-moduak.

Otsailaren 2eko 105/2008 Errege Dekretuan jasotako testu zehatzean ondokoa adierazi da:

20/11 

“Testuinguru horretan, ukitutako sektore guztien adostasun orokorra dago oinarrizko arauketa ezartzeko beharrianari dagokionez, eraikuntza- eta eraipen-hondakinei buruzko arauketa zehatza, hain zuzen, ekoizpenaren eta kudeaketaren gutxieneko betekizunak ezarri dituen, horren prebentzioa, berrerabilera, birziklapena, balorizazioa eta ezabatu beharrekoen tratamendu egokia sustatzeko xedearekin”. Hori dela medio, a) eta b) atalak berriro modu honetan hedatzea proposatu dugu:

“a) Ingurumen-arloko baldintza ziurretan eraikuntza- eta eraipen-hondakinen prebentzioa, berrerabilera, birziklapena eta bestelako balorizazio-moduak (garrantziaren ariora) sustatzea”.

Atal horrek (Dekretu Proiektuaren a) eta b) atalak barne), jarduketak garrantziaren arabera lehenetsita, c) atala esangurarik gabe utzi du.

3. Artikulua. Aplikazio-eremua

3. puntuan ondokoa adierazi da:

“3. 3. Aplikatu beharreko arauketa zehatzaren ariora ezarritako betebeharrei kalterik egin gabe, arau horren aplikazio-eremutik

kanpo geratuko dira ur-azalen barruan berriro kokatutako sedimentuak, uren nahiz nabigazio-bideen kudeaketaren, uholdeen prebentzioaren edo uholdeen nahiz lehorteen ondoreen murrizketarako, edo lursail-azalera berrien sorreraren ondoretarako, baldin eta sedimentu horiek arriskutsuak ez direla egiaztatzen bada.”

Bada, baieztatu den bezala, arautik kanpo jarduketa hauek geratuko dira: sedimentuak "ur-azalen barruan berriro kokatzea, uren nahiz nabigazio-bideen kudeaketaren, uholdeen prebentzioaren edo uholdeen nahiz lehorteen ondoreen murrizketarako". Izatez, gure iritzi, testu horrek zalantzak eragiten ditu.

20/11j

Eta hori, "ur-azalen barruan" egindako jarduketei buruz hitz egitean, hori ez dator bat uholdeen prebentzioarekin edo murrizketarekin. Horren ordez ibilguetan jarduketak egitea ezarri beharko litzateke. Horrez gain, zaila da ulertzea jarduketa horiek lehorteak murriztu ditzakeela.

5. Artikulua. Fidantza

- %120ko zenbatekoak harritu gaitu. Izan ere, ohiko ehunekoa da eta horrela bada, gure ustez proportziorik gabekoa da.
- Hala, 2. atala gehitu behar da (Dekretu Proiektu honetan jasotakoa hirugarrena izanda).

“2. “Fidantza hondakinen kudeatzaileak obra-lizentzia eskuratzeko duen unean gordailuko da”.

Eta hori fidantza behar bezala araututa badago ere artikulua testuan fidantza zein unetan eta zeinek gordailutu behar duen adierazten ez bada. Beraz, horri begira erregelaren bat ezarri beharko da.

8. Artikulua. Obra handiaren ondoriozko eraikuntza- eta eraispennondakinen segregazioa

2. puntuan ondokoa adierazi da:

“2. Hondakin arriskutsuak (hala nola amiantoa, PCB, edo harrikatz-mundrunak), gainerako hondakinetatik bereizi beharko dira, hondakin arriskutsuen pertsona eskuetsiak behar bezalako tratamendua eman diezaion.”

Gure ustez, hondakin arriskutsuen oso zerrenda murriztailea da, 9. artikulua a) letraren 2. atalean jasotako zabalagoarekin alderatuta; gainera, etab. ezartzean zerrenda ez da agortzen. Hau da:

“2. Hondakin arriskutsuak: amiantoa, pinturak, detergenteak, kolak, erretxinak, gehigarriak, etab.”

9. Artikulua. Obra txikiaren ondoriozko eraikuntza- eta eraispennondakinen eta -materialen ekoizleen eta edukizaitzaileen betebeharrak

Obra txikiaren ondoriozko hondakinen kudeaketari buruzko betebeharrak laudagarri batzuk ezarri dira, baina kontrolik gabezia kontuan izanda, batik bat Udalerri txiki eta ertainetan. Izan ere, hori Ingurumeneko Sailburuordetzaren eta/edo Mankomunitateen ekimenekin osatu beharko da. Eta hori guztia Azken Xedapenetatik Lehenengoan ezarritako ordenantzek ez dute konpontzen kontrol-baliabideen eskasia, bereziki, udalerritxikietan.

10. Artikulua. Eraikuntza- eta eraispennondakinen kudeatzaileen betebeharrak

Bada, c) atalean, egiaztagirien edukiari buruz, jarraian adierazitakoa gehitzea gomendatzen da.

c) Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ematen dituen edukitzaileari edo kudeatzaileari jasotako hondakinen kudeaketari buruzko egiaztagiriak luzatzea, ekoizlea eta jatorrizko obralizentziaren zenbakia zehaztuta, **bai eta Dekretu honen VI. Eranskinean ezarritako ereduan jasotako gainerako atalak ere.**

Eta ondoren, **VI. Eranskina sortzea**, egiaztagiria barnean hartzen dituzten betekizunekin batera. Adibide gisa puntu hauek jasotzea proposatzen da: eraikuntza-enpresaren (edukitzailea) datuak, sozietatearen izena eta IFK; hondakinen ekoizlearen datuak, sozietatearen izena, IFK, obraren helbidea eta udalerrria, hirigintzalizentzia eta hondakinen emate-data, bai eta eskatzailearen datuak ere.

20/11j

12. Artikulua. Lantegi mugikorretan egindako eraikuntza- eta eraispen-hondakinen balorizazioa

“Lantegi mugikorrek” bezala ezagututakoari buruzko definizioa ematea komenigarri da.

Laugarren Xedapen Gehigarria. Erosketa Publiko Berdea

- Lehenbizi, idazketa urria iruditzen zaigu, hondakinak murrizteari, eraikuntza modularri edo material toxikoen ez-erabilerari buruzko oso alderdi garrantzitsuen inguruan ezer adierazten ez delako.
- Bigarrenez, *izateko ahaleginak egin behar dituzte* esaldiaren ordeztan *izan beharko dituzte* esaldia ezartzea komenigarritzat jo dugu.

“Aginduak... Gisa bertsuan, kontratazio-organoek, abantaila gehien dituen eskaintza baloratzeko oinarritzat erabilitako irizpideak zehazteko, kontuan **izateko—ahaleginak—egin beharko—dituzte izan beharko dituzte** eraikuntza- eta eraispen-hondakinen prebentzioari eta berrerabilerari edo birziklapenari buruzko neurriak, baita agregakin-obren

unitateetan eta hondakinen balorizazioaren ondoriozko bestelako produktuetan halakoak erabiltzeari buruzko neurriak ere".

- Hirugarrenez, 2. atal hau gehitu beharko da:

“EAEk lizitatzen dituen obra-kontratuen agindu teknikoan agirietan helburu horretarako gutxienez ere eraikuntza- eta eraispén-hondakinen balorizazio-eragiketen ondoriozko materialen %x erabiltzeko betebeharra jaso ahal izango du”.

Hori, gure ustez, prebentzioaren eta erabileraren sustapenerako osagarri egokia delako. Era berean, erabilitako idazketaren bidez administrazioak bere kabuz erabakitzeko aukera du.

20/11*i*

Azken Xedapenetatik Laugarrena. Otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren aldaketa

Halaber, 2. puntuan jasotako 49/2009 Dekretuaren 26. artikuluan aldaketan ezarri den bezala, 500.000 m³ baino gutxiagoko betegarrien kasuan, Udalari aurretiaz komunikazioa bakarrik egin behar zaio.

Goi mailako mugara hurbildutako kopuruek eragin garrantzitsuak sorrarazi ditzaketenez gero, eskakizuna ez dago eragin daitekeen kaltearen maila berean.

Azken Xedapenetatik Bosgarrena

Azken Xedapenetatik Bosgarrena gehitzea gomendatzen da, hain zuzen ere, **"Fidatzen Gaurkotzea"** izenburupean. Beraz, Dekretu Proiektuan agertzen dena seigarrena izango (Seigarrena.- Garapena) litzateke, edo halakorik izan ezean, bosgarrenean 2. paragrafo gisa (Bosgarrena.- Garapena) jasotzea gomendatzen da, ondoko idazketarekin:

Ingurumeneko sailburua gaituko da 5. artikuluan ezarritako fidantzaren zenbatekoa gaurkotzeko.

Izan ere, gerta daiteke fidantzaren ehuneko zenbatekoa (~~%120~~) gaurkotu beharra izatea (bai goranzko joerarekin, bai beheranzko joerarekin), zio ezberdinen ondorioz, eta ez da ageri hori beren beregi adierazten duen xedapenik.

IV. ONDORIOAK

EGABren ustez eraikuntza- eta eraispn-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautu dituen Dekretu Proiektuari buruzko izapidetza egokia izan da, organo aholku-emaile horrek egindako oharrak aintzat hartuta.

20/11*i*

Bilbon, 2011ko azaroaren 18an.

Presidentea O.E.
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia
Francisco José Huidobro Burgos

